

—Egunon, Aitziber. Loti hori...

—Aaaah! Egunon.

—Gosaria prest daukazu. Ni orain presaka nabil, badakizu... Nik erosiko dut ogia. Hala ere erosketak egiteko astirik izango bazenu... Badakizu non dagoen zerrenda.

—Ongi... babarrunak? Niri etzaizkit gehiegi gustatzen, badakizu... Oh!

—Denetatik jan behar dugu ordea.

—Batzutan gorroto diot sendagile baten laguntzailearekin bizi behar izanari.

—Ui, zergatik?

—... Honek zuntz asko duela, besteak kaltzio gehiegi...

—Beno, beno. Agur, Aitziber.

—Agur... bwana!

Ai, ze desastre den neska hau! Berandu iritsiko da lanera. Etxean nengoenean beti oso geldia nintzela eta kexatu egiten ziren... Aitziber gertutik ezagutuko balute... Baina pisua partaidatzeko, esan beharra dago atsegin dudala bere konpainia. Horren neska jatorra da, kezkarik gabea... Batzutan atsegingo nuke bere laisaitasunetik apur bat izatea. Beharbada hobeto biziko nintzateke... Ai, ama! Autobusa!

.....

—Kaixo! Etxean al zaude, Aitziber?

Beno. Badirudi oraindik ez dela heldu. Berandutu egingo zitzaion; ohituratzat dauka. Hobeto. Horrela nire gela piskat konpontzeko aukera izango dut bazkaria berotzen doan bitartean. Arropa guztia beti hortik botata uzten dut eta dena pilatu egin zait. Alkondara urdina... Hau garbitzera eramango dut. Jertseia... behin bakarrik jantzi dut. Tolestu eta armarioa. Umm. Halako lanak ez lirateke bazkaldu aurretik egin behar; nekatuegia nago nahaste borraraste hau konpontzeko... beti bezala! Aaai! Eta oraindik ez dakit zer jantzi amonaren etxeko afarira joateko. Jertsei marroia? Ez... Alboko dendan ikusi dudana hain da polita... Baina, zer ari haiz pentsatzen, jadanik dauzkanan gauzak non sartu ez badakin? Egin dun, zer...?

—Egunon! Eguerdion! Arratsaldeon! Edo nahi duzuna..., baina non arraio zaude?

—Hemen. Gelan. Baina sartzen ez bazara, hobe. Beranduago, nahi izanez gero.

—Mmm. Farregura ematen dit gelako zoruan, arropaz inguratuta, zu ikusteak.

—Ba..., niri ez.

—Aa.

—Itzali sua, sukaldera bazoaz.

—Bale.

«Beno, gelatxo. Bazkaldu ondoren sartuko naun hirekin. Ez mugitu, e!»

—Zertaz ari zara barrezka?

—Ezertaz ere ez, Aitziber, ezertaz ez! Zer egingo duzu gaur arratsaldean?

—Gaur? Eee... gaur atera egingo naiz.

«Ah. Beno, nik afari famatu hori daukadala-ko esaten nizun. Ez naiz beranduegi itzuliko baina...

—Ba, egon lasai.

—Aitziber! Zulutxo bat daukazu jertseian. Zera, puntu pare bat joan balitzaizu bezala. Egon piskat; konponduko dizut. Orain. Horrela ez da nabaritzen.

—Milesker.

—Har dezagun bazkaria. Gose naiz.

—Ni ere bai... baina ez prezaiski babarrun gose.

—Ez izan hain kexati, neska. Jan itzazu gu-txi batzuk. Horrekin pozik geratuko naiz.

—E! Etzara nire ama.

—Ez.

—Orduan zergatik amore ematen dizut beti?

—Zure ama ez naizelako.

—... Gutxi bota, e!

Batzutan pentsatu izan dut Aitziber nirekin izateak heldutasunera iristeko balio izan didala. Ahizpa txiki bat bezala ere ikusi izan dut. Berataz arduratzen naiz, etxeko lanetaz ere bai, bion artean egiten baditugu ere. Baina ez zait astuna gertatzen. Zerbait magikoa dauka neska honek maitagarri bihurtzen duena eta zehazki ez dakit zer izan daitekeen.

—Gaur niri jazotzen zait fregatzea, baina laster prestatzen ez banaiz ez naiz afarira helduko.

—Hala bada, joan lasai. Nik egingo dut.

—Suuuuperraitziber! Zer egingo nuke zu gabe!

—Kontuz errepidearekin. Bide hori etzait batere gustatzen; bihurtune eta zuhaitz gehiegi dago.

—... Horrek zer esan nahi du, kotxea uzten...

—Noski.

—Ez dakit...

—Ez ibili tontakerietan. Hartu eta kitto. Um! Apurtzen badidazu... oso osorik ordaindu beharko didazu...

—...

—Tuntuna. Txantxetan ari naun! Hori bai, gasolina bota beharko diozu.

—Hori esan beharrik ez dago.

—...

—Tuntuntuntuna! Ni zertan ari nintzela uste hunan!

—Jadanik markatzen dagoelako nioen. Beno, afari ona egin.

—Gauerarte, Aitziber.

Ea amonak gailetak egin dituen! Atsegingo nuke Aitziberri ekartzea. Hain dira onak! Ez nik errezeta ez daukadalako, baina ez da gauza berdina. Ba... ziur egin dituela. Batzuk eramateak nolako ilusioa egiten didan jakingo ez balu bezala! Gainera, gorde ere beti gordetzen dizkit bakan batzuk. Hain gozozale izango ez bagina... Ea itzultzerakoan ez dudan aparkatzeko arazorik. Hala ere, kotxez hobeto noa. Taxia ere merke jarri den ba! Horrezaz gain erosoago gertatzen zaidan ohizko tokitik joatea baino. Bai, hori egingo dinat, karretera zaharretik joan. Luze samarra dun eta bihurtune faltarik ez zegon, baina... Gainera aspalditik ez naun osaba Joxeren baratzatik igaro. Toki hura bai atsegin izaten nuela txikitan. Ze arraio! Handik joango naun.

.....

—Kaixo, amona. ...ai ama!

.....

Ordubiak dagoeneko! Aitziber lotan egongo da aspaldi. Gailetak gosaltzeko emango dizkiot. Panda zahar honekin! Tira, pitxurri. Ez dun karretera ona, bazekinak, baina atera iezaion salero piskat gehixego! Umm. Azken euriteetan luiziek hasi hituan errepidea hondatzen eta a ze ibai bazter itxura daukan orain! Ertzetan sastraka orlegi gris horiek jarri beharrean, haraneko behekaldetan bezala zuhaitzak landatu izan balira... Horixe ezetz, honek etzinan halako basamortu tristeren itxurarik izango! Ai... baina gaur egun nor zegon halako lan gogorrek egiteko prest? Ez, ez, amonari ez zitzaion arrazoirik falta. Hainbat eta erosoago,

orduan eta alperrago. Beeno! Bagoaz; autopistako argi laranjak ikus ditzaket. Hori bai iluntasunari lekua ohostea ingurumarien beztura areagotzen duen bitartean. Bost minutu barru etxean izango naun!

Irratia itzali, argiak... Ai, pestiloa!

Zeinen nekaturik nagoen. Giltza. A ze nolako zarata egiten duen ate madarikatu honek. Oinez igoko naiz; total, bigarren pisua da. Kankarro honen zarata! ssss!

Aitziber lotan dago, ez bait dago argirik gelan. Komunera orduan, zuzen zuzenean, hortzak garbitzera. Jan dudan goxoki pila honen ondoren, zer gutxiago! Orain, pijama jantzi eta ohera.

Zer da hau! Argia! Baina ez da nirea. Aitziberrek utziko zidan hemen. A ze kutxatxo polita! Niretzat izango al da? Baina barruan ez dago ezer! Aaai! A ze azkuria! Bihar galdetuko diot Aitziberri... edo beharbada oraintxe; bere gelan isilean sartu eta nire sorpresatxoa utziko diot mahai gainean. Baina ez nau harrapatu behar. Zergatik sentitzen dut barregura hau? Umetxo txikia bezala sentitzen naiz. Poliki poliki, atea ireki eta... kontuz! Hementxe utziko dut. Gabon Aitzi... Baina, ez dago!!!


—Aitziber! Aitziber! Telebistan hartu al duzu lo?

Ez dago egongelan.

Argia.

—Non arraio zaude? Oharren bat utziko zenuen gero. Baina non? Hemen ez dago ezer.

Hau ez da batere normala neska honengan. Inoiz ez da kanpoan horren berandu arte egoten. Zerbait gertatuko ote zitzaion? Ai, ama! Zer egin dezaket? Ordubiak pasiak dira. Ezin dut jendea deitzen hasi. Kezkatu egingo ditut. Ezertarako. Azken batez ezin dezakegu ezer egin. Ala... bai? Ez dakit. Bere gelan begiratuko dut berriro, baina... Ez, ez dago oharrik, ez dago motxilarik... arropa gehiena falta da. Ihes egingo ote zuen neska honek? Baina norekin? Nik dakidanez ez dauka senargairik. Egia esan, hortik aparte ez dakit bere lagunetaz gauza handirik... Berak esaten zidana bakarrik. Ezingo nuke bere lantokira ere deitu. Berak zioenez idazkari gisa aritzen da papergintza lantegi batean...



Halere ez dakit ez izenik ez telefonorik... beraz...

Jertseia! Ummm. Zulotxoa. Baina nik josi diot eta! Eta kutxatxoa. Zergatik utziko ote zidan kutxatxoa?

Hutsik dago, ireki dudanean bezala. Ea zerbait duen kanpoan. Ai! Isterakoan berriro sentitu dut. Azkuria. Merezi al du horrela egoteak? Beharbada hobe litzateke ohean etzan eta bere deiaren zai egotea. Beharbada lehenago deituko zidan ni oraindik etorri gabe nengoenean. Gainera ospitalera eramán behar izan badute ez zeukaten motxilan kalerako hainbeste erroa sartu beharrik. Beraz, han ez dago. Bahituta? Hori? Ez. Dena den, Aitziberrren berririk ez badut poliziari deitu beharko diot, hori argi daukat. Baina oraindik goizegi da hara deitzeko. Gehiago itxaron dezadan eskatuko lidakete. Goizerarte itxarongo dut.

Gaupasa egitea otu izan balitzaio oharren bat utziko zidakeen. Arropa ordea... Eta lagun baten etxean asteburua igarotzera gonbidatu badute? Ez litzateke horren harritzekoa izango. Beharbada bihar goizean deituko dit ondo dagoela esanez. Eta kutxatxoa? Oparia edo? Mmmm, izan lieteke. Ez da nire urtebetetzea baina...

... ez da ba bizilagunen baten etxean egongo... beharbada beranduago espero ninduen... bere berebela nik daukat ordea...

... bihar goizean... ez badago... polizia... non utziko ote zuen amaren telefono zenbakia...

—Ai! Aaaaah! Aitziber! Aitziber!

Etorriko ote zen? Azkenean lo gelditu naiz...

—Aitziber?

Ez dago erantzunik. Hau gehiegizkoa da. Aitziberrek badaki ni azkar kezkatzen naizela eta bera ere nahiko heldua da horrelako gauzak ez direla egin behar jakiteko. Zer arraio egiten dut nik orain jakin baldin badaiteke? Ia hamarrak dira, eta ez du etxean lo egin. Hamabiak arte itxaron? Ez dakit. Polizia? Galdeztzeko behintzat. Edo... Baina zer esango diet ba! Hogeitalau urteko nire laguna arropa hartu eta desagertu dela ezer esan gabe? Adina badu nahi duena egiteko. Hala eta guztiz ere gauza horiek lagunei komentatu egiten zaizkie; hori gutxienez. Zertarako joan behar zuen esa-

ten ez bazidan ere, joan behar zuela esan ezperen, eta kitto.

Txirrina.

—Banoa! ...A! Kaixo, Sara. Aitziber ikusi al duzu?

—E? Ba, ez... zera, behin jatera gonbidatu ninduzueneko txokolate pastelaren errezeta eskatu nahi nizan. Gaur semearen lagunak datoz entrenamenduaren ondoren Josebaren urtebetetzea ospatzera. Hamairu egiten ditu. Horren gustokoa du txokolatea! Nik baneukan errezeta baina ez dut aurkitzen eta dendara joateko presaka nabil. Badakizu, ume hauek... Zerbait gertatzen al zaizu?

—Bai, zera, ez, niri ez. Baina Aitziber gaur gauean ez da etxetik agertu. Kezkaturik nago. Abisatu gabe ez du inoiz halakorik egin. Ez dakit nola... Ahh, ez dakit.

—Norbaiti esan al diozu?

—Ez. Ez dakit familiari abisatu beharko diodan. Beraiek kezkatzea ordea...

—Jakín beharko dute. Desagerpena ez da zure errua.

—Desagerpena?

—Beno, esateko modu bat da. Lasaiago sentituko bazara, deitu poliziari. Beraiek ezer ez badakite, itxaron arratsalderarte familiari deitzeko. Ordurako Aitziberrek deitzeko denbora izango du, deitzekotan.

—Zuk uste duzu...

—Bai. Ulertzen dut zu kezkatuta egotea, baina ez larritu oraindik. Begira, ni orain erosketetara noa. Senarra berandu etorriko zait lanetik eta semeak jolastera joan zaizkit. Erosketetatik etorri eta pastela egiten lagunduko al didazu?

—Pastela? Ez dakit... baina hemen izan beharko litzateke... eta norbait badator... deitzen badidate...

—Lagunartea izango duzu behintzat.


—Beno... ados ba.

—Gero arte.

—Bai.

Hor zegoen Martina ateko zulotxotik begira. Kontakatilu hori! Orain mundu santu guztiari esan beharko dio entzundakoa!

Sara konfidantzakoa dut behintzat. Mmmm, ikasle nintzenean Joseba zaintzen



nuen udaran. Mutil haundia egiten ari da... eta nik ez diot ezer erosi. Sarari galdetuko diot, ilusio handia egingo lidake zerbait oparitzeak.

Orain deituko al diot poliziari? Beharbada hobe Sarari itxaroten badiot. Orduan sukaldea piskat ordenatuko dut. Ohea ere ez dut egin. Piskat orraztu, konpondu... A ze desastre! Leihoak ireki...

Atea... telefonoa... atea... telefonoa... tuuuuuu, tuuuuu, tuuuuu... atea.

Erantzungo dut... ez... tuuuuu... Sara... tuuuuuu hor al zaude? tuuuuu...

—Bai? Polizia?

Eskegi egin behar nuen. Urduriegi nago erantzuteko.

—Norbait al dago hor? Ni naiz, Sara.

—Banoa, Sara.

—Uf! Dagoeneko kezkatzen hasia nintzen.

—Barkatu ez dizudalako lehenago ireki baina...

—Berdin du. Ez dut molestatu nahi baina zu bakarrik uztea etzait aproposa iruditzen. Haatik, nahiago bazenu bakarrik egotea... zera, enbarazo egiten badizut...

Bai, nahiago nuke bakarrik...

—Ez, sar zaitetz. Zera, zatoz nirekin.

—Hau al da erosi behar nuen txokolatea? Zalantzan egon naiz hau eta beste batekin. Banekien kanpotik urdin iluna zela. Antzeko horrenbeste zegoen ordea... Ez duzu deitu, ezta?

—Ez.

—Deitu.

—...

—Nik lagunduko dizut.

—Bale.

—...

—... Polizia? Zera, aspaldi samar pertsona baten berri jakin gabe gaude eta... Bai, hori da. Bi neska dira pisu berdina partaidatzen eta... Zu jartzea nahi dute.

—Ni... bai? Egunon. Bai, atzotik falta da. Aitziber Garmendia. Ez, ez du inoiz halakorik egin; beti esaten zidan nora zihoan, edo deitu, edota notatxo utzi... Galdu? Ez, zerbait idatzi izan balit aurkituko nukeen. Ziurtasun osoz... Bale. Telefonoa emango al dizut edota nik deituko dut?... badaezpada 453879, bai hori da.



Milesker. Berehala abisatuko didazue, ezta? Bale, bai, agur.

—Orain hobeto al zaude?

—Beno, bai. Gutxienez ez dago han. Beharbada etzaio ezer txarrik gertatu.

—Beharbada beste nonbait galdetu beharko genuke, zera larrial...

—Ez!

—Nik egingo dut orduan.

—Bai?

Aai. Deitzen duzunean, Aitziber, akabatu egingo zaitut. Ez dut uste gertatutakoa justifikatzeko haina aitzaki esistitzen denik ere. Entzun beharko duzuna monumentala izango da. Baina etorri, mesedez zatoz lehenbaitlehen.

—Ez dakite ezer.

—Telefonoa utzi al diezu?

—Hobe guk deitzen badugu. Ea, zatoz ni laguntzera...

.....

Orduak amaigabeak egin zaizkit. Hirurak dira. Pastelak bi ordu daramatza prest. Ni lehen baino askozaz urduriago nago. Sarari joateko ordua heldu zaio.

—Beno, etxera jo beharko dut. Etxera gonbidatuko zintuzket, bazkaltzera, baina zurean egon beharko duzu.

—Bai, eskerrik asko.

—Ez da ezer izan: Berririk baduzu, esaidazu mesedez. Laguntza behar izatekotan badakizu non nagoen.

—Bai... Josebari emaizkiozu zorionak nire partez. Zerbait erosi nahiko nioke.

—Ohh, ez.

—Bai, bai. Baina zuri galdetu nahi nizun lehendabizi.

—Zuk nahi duzuna. Badakizu zernolako mutila den. Ez erosi jostailurik.

—Ez... adina joan zaiola uste dut.

—Bai...

—Beharbada libururen bat edo... futbolera-ko belaunentzako berriak erosiko dizkiot.

—Horixe! Ilusio handia egingo dio.

—Ongi. Esaiozu, Aitziber agertzen bada noski... ez, esaiozu bihar hemendik pasatzeko.

Amaren gailera eta txokolatera gonbidatu nahi dudala esan. Lagunen bat ekarri nahi baldin badu... Ordurako Aitziber hemen egongo da... egon beharko du.

—Lasai. Geldituko gara bihar. Umm, pastela ahaztuko dut! Aitziberren berri duzunean abisatu mesedez.

—Ados. Jaķingo duen lehenengoa izango zara.

—Agur ba.

—Agur.

Orain... ez dakit...

.....

Zazpirak laurden gutxi. Besaulkian egoteaz nekatu naiz. Ohera joko dut. Beharbada etzanda egonik hobeto sentituko naiz. Ez dakit ordea.

Aaai. Aharrausi luze, logura edo gose. Gaur ez dut bazkaldu; oraintxe konturatu naiz. Baina ez daukat goserik.

Gortinak itxita daude. Gela ilun dago, horiska, kanpotik datorren argi tristearen ondorioz. Ez dut sentsazio hau atsegin; mahaitxo-ko argia biztuko dut, gozoagoa da. Hor dago kutxa, distiraka bere kolore gorriskak. Ireki. Azkuria. Itsi. Ze bitxia den. Ireki... zerbait barruan sartuko balitzait bezala sentitzen dut irekitzen dudak bakoitzean. Itsi. Berriro. Bitxia benetan. A ze beroa sartu zaidan. Jertseia kenduko dut. Ui! Zulotxoak! Bizkarreko ezker aldean. Puntu pareta dira, nonbait engantxatu izan banintz bezalakoak. Aitziberrek ere hor zeuzkan, leku berdinean. Kutxaren errua izango al da?

Irribarrea.

Bapatean beldurra sentitu dut. A ze tontakeria, kutxa baten beldur! Txinako ipuinetan bezala herensugea atera behar al zait ala? Ez dit graziaz egiten. Halako txantxa zentzugabea!

Argi honekin gauza guztiak aldatu egiten direla ematen du. Gorriskago. Gelako txoko bakoitzeko itzalak... ilunago. Danteren infernuaren antza hartzen doa. Eta kutxa gorritzatzen... A ze odolaren antza! Non dago Aitziber? ...Ez da itzuliko. Orain badakit, ez da

itzuliko. Baina zergatik?... Ez da itzuliko...
Zerrr...

.....

Zein arraroa. Aitziberren berrien zai egon
behar zuela esan dit baina ez du erantzuten.
Badaki Sara naizela...

.....

—Bai. Atzo desagertu zen bere laguna, eta
oraintxe bera.

—Atea bota dugu, teniente. Dena puskatu-
rik dago hor barruan. Arropa gutxi aurkitu
dugu. Aldegingo ote zuten?...

—Egia esan, ez dakit.

—Gauza arraroren bat ikusi edo somatu al
duzu?

—Ez. Beno... Norbaitek pakete bat utzi dit
atean, nire izenean.

—Ikus al dezaket?

—Oraindik ireki gabe daukat.

—Kutxa gorria. Infernutik ekarria dirudi.

—A ze distira daukan... Bustia dago... eta ez
dirudi margoa...■

